

2

Revista
de Estudios
Marítimos
del País Vasco

ITSAS
m e m o r i a

U·M

UNTZI MUSEOA · MUSEO NAVAL

Donostia · San Sebastián



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Ohorea da niretzat Itsas Memoria bilduma bikain honen bigarren ekarri honetan parte hartzea, batez ere, lehen alean aipatzen zen helburuarekin leiala delako, alegia, Euskal Herriko itsas gaiei buruzko ikerlan zehatza egiten duelako. Eta, lehen ale hark lan horiek zertan ziren jakiteko aukera eman zigun bezala, oraingo honek, historiografian merezitako izena duten adituen eskutik, erakargarria bezain ikertu gabea den gai nagusi bati heldu dio: Euskal Herriko untzigintzari.

Oraindaino ezagutu ez dugun ikuspegi bat dakarkigu lan aitzindari honek; izan ere, hainbat gai eta garai era monografikoan aztertu eta interpretatzeaz gainera, itsasoari hain lotua egon den gure herriko untzigintzaren bilakaera Erdi Arotik hasi eta egundainokoa zuzen ezagutzeko behar den ikuspegi orokorra ematea ere lortzen du.

Bereziki aipatu nahi ditut Untzi Museoak ur gaineko ondarea berreskuratu eta babesteko egiten duen lana aztertzen duten saiakerak ere. Aldizkariaren sustatzailea dugun Kultura eta Euskara Departamentuko museo honen lan isil, funtsezko eta etengabea erakusten digute, lan horren balioa estimatzen eta gozatzen dugunon pozerako.

Ongi etorri, beraz, ale berri honi. Ongi etorri gure historiografian leku garrantzitsua duen eta izango duen zabalkunde, adierazpen eta komunikaziorako tresna paregabe honi.

Supone para mí un orgullo ser partícipe de la segunda entrega de la magnífica revista Itsas Memoria, principalmente por su fidelidad al objetivo que se apuntaba en el primer número: el desarrollo de una rigurosa labor de investigación sobre temas marítimos en el País Vasco. Y si en aquella ocasión pudimos conocer el estado de la cuestión de dichos estudios, en ésta numerosos especialistas de relevancia historiográfica acometen un tema central tan apasionante como poco analizado hasta la fecha: la Construcción Naval en el País Vasco.

Nos encontramos ante una labor pionera que aporta una visión inexistente hasta el momento, dado que, al tiempo que analiza e interpreta de forma monográfica diversas épocas y cuestiones, es capaz también de plantear una visión de conjunto que nos permite conocer de forma ajustada la evolución de la industria naval en nuestra tierra —este territorio tan ligado siempre al litoral— desde la Edad Media hasta nuestros días.

Quisiera además hacer especial mención de los ensayos que analizan el trabajo de recuperación y protección del patrimonio flotante que lleva a cabo el Untzi Museoa-Museo Naval —perteneciente al Departamento Foral de Cultura y Euskera y promotor de la revista—. Una tarea esencial, callada y perseverante que es motivo de gran satisfacción para todos aquellos que la valoramos y disfrutamos.

Sea pues bienvenido este nuevo ejemplar, impagable medio de divulgación, expresión y comunicación, que sin duda ocupa y ocupará un lugar destacado en nuestra historiografía.

Koruko Aizarna Rementeria
Kultura eta Euskarako Foru Diputatua
Diputada Foral de Cultura y Euskera